

# UDAL APARTAMENTUETAKO PREMIAZKO OSTATU-ZERBITZUAREN PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ARAUA

## 5. araua

### Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan jasotako baimenaren babesean.

### Kontzeptua

2. artikulua.- Prezio publiko hauek dagokien Erregelamenduan B motako lizentziatarako zehazten den zerbitzurako ezartzen dira. Zerbitzuak lizentzian aipatutako apartamentuaren okupazioa eta bertako altzarien eta tresnen zein etxeko gainontzeko zerbitzu osagarrien erabilera hartzen ditu barne.

### Tarifen aplikazioa

3. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifak arau honen eranskinean daude jasota, eta barne hartuko dute, behar izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

4. artikulua.- Oinarrizko modulutzat egongela, sukaldea, komuna eta logela bakarria dituen apartamentua hartuko da, 30 metro karratu ingurukoa.

### Kudeaketarako eta diru-bilketarako arauak

5. artikulua.- Zerbitzu hau erabiltzeko prezio publikoa hilabetez hilabete ordainduko da, betiere hilekoak osorik eta aurretiaz ordaindu behar direla.

Hasierako edota amaierako ordainketak ez badatoz bat hilabete natural batekin, egun naturalak hainbanatuz eginen dira.

6. artikulua.- Eskabidearekin batera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarako aurkezturiko aitopenen kopia aurkeztuko da, halakorik egoki bada, edo, bestela, urtean jasotako diru-sarrera gordinak egiaztatzen dituzten agiriak.

7. artikulua.- Tarifak aplikatzeko oinarritzat hartu beharreko diru-sarrera gordinak tarifa horiek noiz aplikatu behar diren eta aurreko urtean jasotakoak izanen dira. Goian aipatutako agiriak aurkezten ez dituztenei gehieneko tarifa ezarriko zaie.

8. artikulua.- Zerbitzua erabiltzeko lizentzia eskuratu eta gero hari uko egiten bazaio, hilabete bati dagokionaren % 50 ordaindu beharko da. Lizentzia epe laburrago baterako ematen bada, berriz, ezarritako prezio publikoaren % 50 ordaindu beharko da.

9. artikulua.- Eranskinean ageri den moduan, hilabeteko gutxieneko kuota bat ezartzen da apartamentu bat erabiltzeko lizentzia bakoitzari aplikatzeko, kontsumitutako uraren eta argindarraren ordainketa gisara.

## TARIFA-ERANSKINA

Familia-unitatearen diru-sarrerak Urteko <i>per capita</i> Errenta Garbia	Oinarrizko moduluen hileko zenbatekoa
OAEAParen % 90 baino gutxiago	21,50 euro
≥ OAEAParen % 90 eta % 110 bitarte	54,30 euro
OAEAParen % 110 eta % 125 bitarte	81,00 euro
OAEAParen % 125 eta % 145 bitarte	108,70 euro
OAEAParen % 145 eta % 165 bitarte	135,30 euro
OAEAParen % 165 eta % 185 bitarte	162,00 euro
OAEAParen % 185 eta % 205 bitarte	186,60 euro
OAEAParen % 205 eta % 215 bitarte	210,00 euro
OAEAParen % 215 baino gehiago	234,00 euro

(OAEAP: Ondore Anitzeko Errenta Adierazle Publikoa)

Zenbateko horiei % 20 gehituko zaie oinarrizko moduluko ez gain erabilitako gela bakoitzeko.	
Tarifak aplikatzeko, hona zer hartuko den urteko <i>per capita</i> errentatzat: familia-unitateak eskabidea noiz aurkeztu eta aurreko urtean izandako diru-sarrera gordinen batura familia-unitate horren kideen kopuruaz zatituta ateratzen den zenbatekoa.	
Gutxieneko kuota hilean, uraren eta argindarraren gastuak ordaintzeko:	97,40 euro

